

Euskararen osasuna 25 urteko balorazioa



M A H A I - I N G U R U A

- Pablo Suberbiola
- Xabier Mendiguren
- Patxi Baztarrika
- Carlos Vilches

IRITZIAK

- Alberto Lopez Basaguren
- Emilio Lopez Adan
- Joxe Manuel Odriozola
- Kike Amonarriz
- Xabier Azanza

Kalitatea, erabileraren gako nagusia

Euskarari buruzko eztabaida zabalik da gizartean. Egia esan, inoiz ez da izan erabat itxita. Guk azken 25 urteetan jorratutako ibilbidea aztertu nahi izan dugu LARRUN honetan, atzeak aurrea nola dantzatu erakusten duelakoan. Izango da aurrera begiratzeko astirik. Hizkuntzaren ezagutza, hezkuntzaren lorpen eta gabeziak, erabilera esparruak, hizkuntza eskubideak, arauak eta atxikimenduari buruzko hainbat datu eta interpretazio aurki daitezke ondoko orrialdeetan. Sintesia: asko egin da, gehiago egin zitekeen eta asko falta da.

■ Xabier Letona

Mahai-inguruko argazkiak: Dani Blanco

Ezagutzan emandako aurrerapausoa da euskararen garapenaren harribitxia. Datuak hor dira, baina hauei buruzko irakurketa desberdinak ere bai. Esate baterako, euskaradun berri horien kalitateak kezka pizten du. Zein da zuen balorazioa?

PABLO SUBERBIOLA. Argazki oso orokorra honakoa litzateke: Euskal hiztunen komunitatea hazi egin da, haurrak eta gazteak batez ere eskola bidez gehitu zaizkiolako. Hauentzat euskara bigarren hizkuntza da eta duela 20 urteko gazteekin erkatuta, euskara hitz egiteko erraztasun erlatibo txikiagoa dute.

XABIER MENDIGUREN. Hazkundera hor dago. Bi gauza azpimarratuko nituzke: batetik, hazkunde horretan egon den desazelerazioa eta, bestetik, hizkuntzaren ezagutza mugatua dela eta horrek eragin estua duela erabileran. Hizkuntza jakitea gauza bat da eta erosotasunez erabiltzea beste bat. Ingelesa ere jakin dezake pertsonak, baina gero ohikoan erabili

ez. Horrek zer dakar? “Reclus” eredu famatuak zioen bezala, abiada horretan hemendik 50 urtera populazioaren erdia ere oraindik ez dela euskaldun izango. Azkenotan, urtez urte desazelerazioa gertatzen ari da eta azken urteko datua ikusita, hazkundera 0,7 bada, eta akats tartea ± 2 koa bada, ez dakigu aurreratzen edo atzeratzen ari garen.

Euskalduntze-alfabetatzeari dagokionez ere, une batzuetan ahul ibili da; adin nagusikoen euskalduntzeari ez zaio behar besteko garrantzirik eman. Azkenaldi honetan, dena den, berrindartu den esparrua da. 25 urte hauetan eskolatik zetozen gazteengan utzi da euskalduntzearen zama eta hor huts egin da. Irakaskuntzaren parez pare beste espazio batzuk ere euskaldundu behar ziren eta hor atzera gabiltza eta indar gutxirekin.

PATXI BAZTARRIKA. Ez dut uste azken 25 urte hauetan euskararen ezagutzan emandako aurrerapausoak arazoz, ezintasunez eta akatsez beteta aurkeztu litezkeenik. Goazen zatika. Bat, kalitatea eta naturaltasunaren inguruan erronkak ditugu etorkizunera begi-



Xabier Mendiguren, Patxi Baztarrika, Pablo Suberbiola eta Carlos Vilches.

ra, baina ezin liteke beste modu batera izan. Hazi nahi badugu, hainbatentzat euskara bigarren hizkuntza izatea ezinbestekoa da. Gizarteari begira hori arazo gisa plazaratzea ez da ona. Zorionekoak gu, hazi ez bagina ez baikenukeen erronka hori izango.

Bi, euskarak ez du sekula izan gaur adinako hiztunik. Hiru, eta hau oso positiboa da, gaur egun elebidunen herena euskaldun berria da. EAEn 1991n 15 urtetik gorakoen %24 ziren elebidunak eta gaur egun %30,1 dira. Baina biztanleria osoa, 5 urtetik gorakoak esan nahi da, hartzen badugu, azken 25 urteotan %22 izatetik %37,5 izatera pasa dira elebidunak (Eustat). Are gehiago, erdal elebakarren kopurua jaitsi egin da termino absolutu eta erlatiboetan: Euskal Herrian, 15 urtetik gorakoen artean, 134.000 erdaldun elebakar gutxiago dira, eta 137.200 elebidun gehiago. EAEn elebakarrak %66 izatetik %45 izatera pasa dira. Etorkizunera begiratu, EAEko 15 urtetik beherakoen artean duela 25 urte %20 ziren elebidunak eta gaur %75 dira, eta erdaldun elebakarrak %9 besterik ez.

Nafarroan hazkundea motelagoa da eta Iparraldean oraindik galerak dira. Horrek erakusten du marko

legala, hizkuntza politika aktiboa eta herritarren atxikimendua erabakigarriak direla ezagutzaren garapenean. Zein da, beraz, etorkizuneko erronka? Gaur euskaldun berri diren gurasoek beren etxeko hizkuntza euskara bihurtzea, horrela beren seme-alabek euskara lehen hizkuntza izango dute, eta horrek sekulako eragin positiboa izango luke erabilera gehitzeko.

CARLOS VILCHES. Gai teknikoa da, baina gutxienez Nafarroako datuen bilketari dagokionez, badituzten zenbait kezka. Nafarroako Gobernua bere galdera, lagin eta teknikak erabiltzen ari da eta gero oso zaila da hori beste ikerketa batzuekin era txukun batean alderatzea. Bada garaia Eusko Jurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuak bat egiteko inkesta eta datuen bilketan.

Nafarroan gizartea lasaitu egin da eta euskararen garapena gehiegi utzi da hezkuntzaren eskuetan, euskararen gizarte mugimendua, mobilizazioa eta behar den tentsio hori bazterreratuz. Bestetik, izan den aurkako politikarekin, dezente egin dela ere esan daiteke. Azken 15 urteetan ezagutzari dagokionez, %1,6 puntu gora egin du euskarak eta abiada horretan urte

asko behar ditugu. Etorkinena ere bereziki aztertu beharko litzatekeen fenomeno da, etorri direnak nagusiki G eremuan –dena gaztelaniaz- sartu direlako. Unibertsitatean gertatzen denaz ere baditut kezka, Nafarroako Unibertsitate Publikoan %38 euskaldunak dira, baina denak ez doaz dauden euskal lerroetara. Zergatik? Euskaldun inposatuaren kontzeptua sortu da hor, guraso batzuek inposatu diete seme-alabei euskarazko hezkuntza, eta ez dakigu horrek zer eragin izango duen hauek euskaldun aktibo izaterakoan.

P.B. Carlos, metodologiaz aipatu dituzunak zehaztuko ditut. 1996ko inkesta soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elkarrekin egin zuten Nafarroari zegokionean. 2001ekoan eta 2006koan, aldiz, arazo politikoengatik, Nafarroako Gobernuak ez du nahi izan. Iparraldean, aldiz, Euskararen Erakunde Publikoarekin elkarlanean egin da. Inkesta Soziolinguistikoa, azken 15 urteetan euskararen lurralde osoan egin da, parametro berberen arabera eta metodologia oinarri oso sendoekin. Bere mailan egiten den bakarra da.

P.S. Gaurkoan Euskararen Inkesta Soziolinguistikoa hartu dugu oinarri bezala, baina beste ikerketa batzuk ere badira, esate baterako 1989az geroztik egiten den Euskararen Kale Erabileraren Neurketa.

P.B. Baina Inkesta Soziolinguistikoa bakarra da egiten dituen ikerketa eremuetan: ezagutza, erabileraren azterketa esparruz esparru –formalak eta ez-formalak–, jarrera eta familia bidezko transmisioa.

X.M. Kalitatearenera nator berriz. Nik ez dut uste kalitate eskasa modu positiboan saldu dezakegunik, horrek erabileran ondorio handiak dituelako, Inkestan ikusten den bezala. Gehien erabiltzen dutenak euskal elebidunak dira, orekatuen artean jaitsi egin da eta erdal elebidunen kasuan asko jaitsi da. Zer esan nahi du honek? Hor bat gatoz Inkestak dioenarekin, euskarra benetan ongi dakienak erabili egiten duela proportzio handi batean. Nafarroako eremu euskaldunekoa da horren adibide garbientakoa. Baina aukerarik ez badago eta kalitate maila eskasa baldin bada, ezin da gero erabiltzeko deialdia egin besterik gabe. Horregara

M a h a i k i d e a k

■ PATXI BAZTARRIKA



Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Ataun (Gipuzkoa), 1958. Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua. Lanbidez euskara teknikaria da Andoaingo Udalean (eszedentzian da). Iragan legealdian Donostiako EAJko zinegotzia izan zen eta 1999tik 2003ra Gipuzkoako ahaldu nagusiaren gabinete buru. EE alderdiko eta Euskal Ezkerrako zuzendaritzakoa izan zen. Zeruko ARGIAN *Trikuharria* gisa sinatzen zuen 1971-72-73 urteetan.

■ XABIER MENDIGUREN



Kontseiluko idazkari orokorra

Ezkio-Itsason (Gipuzkoa) jaio zen 1945ean. Filosofia eta Letretan lizentziatua. Hizkuntza ikasketak ere baditu. Itzulpengintza eta irakaskuntza dira bere lan eremu mardulenetakoak. Dozenaka dira eremu hauetan plazaratu eta itzulitako liburuak. 1998az geroztik Kontseiluko idazkari orokorra da. Eskola eta unibertsitateko irakaslea, itzulpengintza eta literaturaren alorrean sari ugari irabazitakoa. Euskaltzain gazlea era bada.

tik oso nekez ulertzen dut zergatik batzuk B2tik behere jaitsi nahi duten ezagutza helburua.

P.B. Nik ez dut sekula esan kalitate eza positiboa denik. Baina hazkundea bada positiboa, eta haziko bagara, hazi gintezkeen moduan bakarrik izan liteke, ez nahiko genukeen moduan, gizarte honen mugen barruan, eta ezin da kosturik gabe. Ez dugu pentsatu behar hala gaudenik zerbait gaizki egin dugulako; famili transmisioarekin bakarrik ez ginen izango ia 700.000 elebidun Euskal Herrian. Duela 25 urte euskararik ez zen administrazioan, euskaraz jarduteko gai zen kazetari oso gutxi, hezkuntzan minoritarioa zen eta ikastolen bidez bakarrik... Aukerak ere, beraz, asko ugaltu dira. Jakina, egiteko daukaguna egin duguna baino askoz handiagoa da, baina gauzak bere perspektiban ikus ditzagun. Bai, hezkuntzarekin, irрати, telebista eta egunkariaren batekin ia egina genuela pentsatzen zen, baina hori baino askoz korapilatsua goa da kontua.

X. M. Beti joango gara aurrera zerbait gehiago eginez. Baina planifikazioak egiten direnean epe batzuk

aurreikusi behar dira eta gero bete diren ala ez aztertu. Kuantitatiboki datuak badira eta diskurtso ofizialarentzat eroso da beti aurrera goazela esatea, baina kualitatiboan hori jakitea zailagoa da. Ezin dugu jarraitu “aurrera goaz” esaten, egiten diren proiektzioak egia baldin badira, hemendik 50 urtera erdiak ere ez baikara euskaldunak izango. Arrazoizko epe batzuen barruan helburu batzuk lortu behar dira, bestela beheranzko errendimentuak sor daitezke. Orain ikusten dugun desazelerazioak kezka hori sortzen dit.

P.B. Hori ez da egia, hemen ez da desazeleraziorik.

X.M. Zergatik ez? Datuak hemen daude.

P.B. Datuek adierazten dute ez goazela beherantz. Lehen eman ditut ezagutzaren datuak eta berresten ditut. Gure gizartean, datu horiek are eta garrantzitsuagoak dira kontuan hartzen badugu gurea etengabe zahartzen ari den gizartea dela, jaitze tasa txikia dela eta 120.000 etorkin erroldatuak ditugula, EAEko populazioaren %5 (Nafarroan %10 inguru), eta horien erdia

■ PABLO SUBERBIOLA



Soziolinguistika Klusterreko teknikaria

Lasarte-Orian (Gipuzkoa) jaio zen 1973an. Soziologian lizentziatua. Urte luzez Lasarte-Oriako Ttakun euskara elkarteko dinamizatzaile izandakoa da. SEI soziolinguistika elkartean aritu zen gero eta, 2004az geroztik, Soziolinguistika Klusterreko teknikaria da. Asmoz Fundazioko Hiznet ikastaroetako irakaslea ere bada.

■ CARLOS VILCHES



Soziologoa eta NUPeko irakaslea

Iruñean jaioa 1955ean. Soziologian doktorea eta Taller de Sociología gabineteko zuzendaria. NUPeko irakaslea ikerketa ikasgaietan. “Euskara Nafarroan zertan den” ikerketa soziolinguistikoaren egilea. Honakoa da bere tesi doktorala: “Nafarroako unibertsitarien jarreraren bilakaera euskararen aurrean. 1992-2002”. Epe laburrean “NUPeko ikasleriaren jarrera elebitasunaren aurrean” ikerketa plazaratuko da.

latinamerikarra izanik gaztelaniarekin datorrela.

Epeen gaia. Badira planak eta epeak, administrazio publikoko planak, esate baterako. Baina kontuz, ez dezagun pentsatu lau epe jartzearekin hizkuntza garapena guztiz bermatu daitekeenik. Hau ez da torlojuak egitea, hori baino korapilatsuagoa da hizkuntza bilakaera soziala.

X.M. Desazelerazioaren datuak hemen dira: 6, 3, 1,7 eta 0,7 dira azken datuak EAEn eta akats tarteak ± 2 ...

P.B. Ezin dira irakurketa horiek egin jaiotze-tasa urriaren eta etorkinen testuingurua kontuan hartu gabe...

Barkatu, baina zaila da eztabaida horrek gehiago ematea. Zuen ikuspegi desberdina argi dago eta Carlosek eta Pablok datu, epe eta helburuen inguruan duten iritzia ezagutzera joko dugu.

C.V. Nafarroan argi ikusten da euskara pixka bat gora doala eta joera gisa behintzat balio du. Baina nire kezka soziologikoa honakoa da, azterketa hauek egitean etorkizunari begira kontuan hartu behar dira gaurko gazteen baloreak. Unibertsitatean egin ditugun azterketetan ikusi dugunez, gazteentzat euskara garrantzitsua da lana bilatzeko, adibidez. 70eko hamarkadako gizarte ideologikoan, kultura eta zenbait baloreren arabera erabil eta jorra zitekeen euskara. Baina gaur egun, gazteek beste pentsamolde bat dute eta horretara egokitu behar da. Nafarroako Gobernuan ez da gauza askorik egiten horri begira.

P.S. Epeei dagokienez, nabarmentzekoa iruditzen zait hezkuntzan gertatutakoa. 1982ko Legeak jarritako helburuan, ikasleak euskara ezagutza maila on batekin atera behar zuen euskarazko eruedetatik eta hori ez da bete. Zer esan nahi du horrek? Zergatik gertatu da? Arrazoi ugari egon daitezke: jarritako helburuak handiak zirelako, edo hobeto egin zitekeelako, edo baliabideak ez direlako nahikoak izan, edo borondaterik ez delako egon... kasu askotan erantzunik gabeko galderak dira.

Jadanik sartuta zaudete hezkuntza eta hizkuntzaren eremuan. Segi jorratzen Xabier.

“Kontsentsu abstraktoak baino, edukiak izango dituzten kontsentsuak lortzera jo behar dugu. Ezin da kontsentsu maila apal bat lortu gero ezertarako balioko ez duena. Eta kontsentsu hori batez ere euskararen inguruan lanean gabiltzanon artean lortu behar dugu”

XABIER MENDIGUREN

X.M. Ereduak finkatu ziren hasiera hartan eskari handia zegoen eta eskaintzarik ez. Nik ondo ikusten dut hasiera hura eta iritsi gara gaurdaino, baina bidean nola gindoazen ikusteko, neurketak eta ebaluaketak lehenago egin behar ziren. Argiak eta itzalak aipatu behar badira, hori itzala da, hori egiteko beldurra egon da. A ereduak ez du euskalduntzen, B-k heren bat euskalduntzen du eta D-k bi heren.

“Eskolari ezin zaio eskatu eman ezin dezakeena” esaten da gaur eta honekin kontuz ibili behar da. Bere mailan, baina euskalduntzea lortu behar du. Beste kontu bat da ea hori nahikoa den gizarte bizitzan aritzeko. Hor daude motibazioa, bitartekoak... baldintza batzuk behar dira, eta bitartekoak jarri –eta beti ez dira egon–, helburuak eta prozesu on bat diseinatzen ez badira, nekez beteko dira helburu horiek.

P.B. Xabier, bitartekoetan, gure gizarteak unibertsitate aurreko hezkuntzari ematen diona Estatuko gorenetakoa da. Hori ez dago zalantzan jartzetik. Hala ere, aurrerapausoa behar dugu hezkuntzan, hori argi dago. Gizarte elebiduna nahi dugunez, ahal dena eskatu beharko genieke bitarteko guztiei, ereduak bitartekoak besterik ez baitira eta ez helburuak. Helburu handiak jarri behar dizkiogu hezkuntzari, baina lorgarriak, bestela porrotari atea geuk irekiko diogulako. Dugun abiapuntua ez da porrotarena, arrakastarena baizik, argi eta garbi. Bestetik, 25 urtetako balantzeak argi dio hizkuntza ereduak ez dela nahiko inor euskalduntzeko.

“**A**rgiak ilunak baino askoz gehiago izan dira. Euskarak non ez du espazio gehiago irabazi? Etxeko salan edo herriko plazan. Lehen oso euskaldunak ziren lekuetara gaztelania eraman du urbanizazio prozesuak. Hori ekidin ezina da, baina arreta jarri behar dugu, lehen ematen ez zen bezala, nahasketa hori alde guztietan emango delako”

PATXI BAZTARRIKA

Zergatik diot arrakastarena? Bi datu besterik ez: une honetan D ereduari haur hezkuntzan %70 matrikulatu da eta 82-83 ikasturtean %12 bakarrik matrikulatu zen. A eta X ereduari %80 matrikulatu ziren orduan eta gaur egun haur hezkuntzan A ereduari %4,7 inguru bakarrik. Orain dela hamabost urte, 16-24 adin tartean, elebidun zirenetatik %25 bakarrik zen euskaldun berria eta gaur adin tarte horretan %60 da euskaldun berria.

Orain egin diren hizkuntza ebaluazioak kontuan hartuta, ikusi da hiru faktorek zuzen-zuzenean eragiten dutela hizkuntza gaitasunean: bat, eredu bera; bi, etxeko hizkuntza; hiru, ingurune soziolinguistikoa, hau da, ikaslearen harreman sarea. Derrigorrezko heziketa amaituta, ikasleei B2 frogan egin zitzaizkion, D ereduari %68k gainditu zuen eta B ereduari 32,6k. Beste bi datu esanguratsu eta asko erabiltzen ez direnak: bat, D ereduari ibili eta etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek %26k ez zuen gainditu; bi, D ereduari ibili baina etxeko hizkuntza euskara ez dutenen %48k bakarrik gainditu zuen B2a. Hau da, argi da eskolak bakarrik ezin duela etxeko, auzoko eta inguruneko hizkuntza gabezia konpondu. Hori Fishmanek argiro esana du. Horregatik esaten dut eskolari eman dezakeena, bai, hori eskatu behar zaiola, eta horretan bistan da A ereduari esaterako sakon aldatu behar dela, baina ez zaio eskatu behar eman ezin dezakeena. Ez baita egia eredu batek berez eta bakarrik euskalduntzen duenik; prozesu horretan eskolatik kanpora daude nolnahi gainditu ezin diren muga ugari.

C.V. Nafarroan gaur egun ikastolek duten indarra handia da, publikoan ordea euskarari ez zaio behar beste indar eman, hizkuntza garapen indartsua izateko. Aurten eskoletan 100.000 ikasle matrikulatu dira eta horietatik A, B, eta D ereduari %45,7. Hor argi ikusten da gurasoek nahi dutela euskara mailaren bat euren seme-alabentzat, baina muga politikoak argiak dira. Orain ikusten ari da Iruñerriko lau udalerriak [Aranguren, Noain, Beriain eta Galar] eremu mistoan sartzeko dituzten arazoak, nahiz eta bertako gurasoek euskarazko ereduak nahi dituzten.

Beste bi hutsune handi daude Nafarroako Hezkuntzan: lanbide heziketa eta unibertsitatea. Unibertsitatean gero eta ikasle euskaldun gehiago dago –une honetan %38– baina oso aukera gutxi euskaraz ikasateko. Adibide bat, irakasle ikasketetan euskarazko matrikulazioa handia da, besteak beste, gazteek ikusten dutelako eremu horretan lan aukerak daudela.

P.S. Euskararen inguruko eztabaidetan hezkuntzan egindakoari luparekin begiratzen zaio, eta sarri ez da kontuan hartzen hezkuntza hori bere egunerokoan hizkuntza ohituretan aldaketa orokorrik egin ez duen gizarte batean aritu behar dela. Gizarte mailako beste gai askotan –berdintasuna, ingurumena...– eskatzen ez dioguna eskatzen diogu hezkuntzari euskararekiko.

Bat zatozte hezkuntzaren mugez. Beste esparru batzuk ere behar dira, non euskarak bere tokia izango duen, maila desberdinean bada ere. Zein garapen izan dute esparru horiek azken 25 urteetan?

X.M. Espazioak euskalduntzearen alorrean hutsune agerikoak ditugu eta arau falta nabarmena dago. Adibide bat aipatzeagatik, Kontsumitzaile Euskaldunen Dekretua, baditu alde positiboak eta negatiboak. Hona negatiboetako batzuk: labor gelditzen da, zonifikazioa, enpresa guztiak bame ez hartzea, etiketak... Positiboen artean dekretua bera izatea, urteak pasatu dira gabe baina orain badaukagu eta erreferentzia bat badugu. Inplementazio epe zehatzak ezartzen ditu eta hau oso garrantzitsua da bestela *sine die* luzatzen dira gauzak. Zigorrek ere onak dira, hori da gaiari seriotasuna ematea, hizkuntzak bere boterea behar du, bestela dena borondatearen esku uzten da. Hedabideak, kirola, kul-



“Alderdi politikoak eta euskara” jorratu zuten 1980an Tolosan egindako mahai-inguruan. Ezker-eskuin: Joseba Barriola (LKI), Jesus Egiguren (PSE), Inaxio Agirre (HB), Antton Elozegi (EMK), Ramon Etxezarreta (EE), Kike Amonarriz (moderatzailea).

tur eskaintza, aisialdia eta abar ongi arautuak ez daude. Horietan berandu hasi da. Lanaren munduan zer esanik ez. Azken finean, sortu behar ditugu euskaraz bizitza ahalbidetuko duten zirkuituak, bestela jai daukagu. Ideia hau estrategikoa da.

Eta aipatu nahiko nuke UEMAren kasua, bere jardunean etengabe eraso judizialak pairatu dituelako. Zergatik? Hor hizkuntzen estatusaren eremuan sartzen gara, euskarak eta gaztelaniak ez dute estatus berdina, gaztelania ezagutu beharrekoa da eta euskara ez. Udal askotako ordenantzak atzera bota dira, euskaraz bizitzeko bidea itxiz. Espazioak euskalduntzen ez baditugu, hezkuntzarekin kostata lortzen diren urrats horiek ezerezean geldituko dira.

Iparraldearen kasua ere aipatu nahi dut. Orain ernamuin txiki bat badago hizkuntza politikari ekiteko, baina oso atzean daude maila guztietan. Kontseiluan askotan transmititzen dugun larritasuna zentzu horretan ulertu behar da, Euskal Herri osoari begira lan egiten dugulako. Badakigu EAE askoz aurreratuago dagoela, baina euskararen egoera ez da hor bakarrik jokatzeko, nahiz eta jakin branka hor dagoela eta besteetarako bidea hor finkatzeko dela. Ahalegin handiagoa egin beharko genuke Euskal Herriaren osotasuna lantzeko.

P.B. 25 urteko prozesuan argi-ilunak daude. Esparru formalen eremua hartuta, administrazioan gertatutakoa ilunguneen espazioan kokatzen dut. Administrazioan ikaragarritzko jauzia eman da, baina egin dena baino gehiago egin zitekeen. Hala ere, oro har, argiak ilunak baino askoz gehiago izan dira. Euskarak non

ez du espazio gehiago irabazi? Etxeko salan edo herriko plazan, hor ez du irabazi, galdu ere galdu du ziur aski. Lehen oso euskaldunak ziren lekuetara gaztelania eraman du urbanizazio prozesuak. Hori ekidin ezina da, baina arreta jarri behar dugu, lehen ematen ez zen bezala, nahasketa hori alde guztietan emango delako. Eta nahasketa espazio horretan, garrantzitsua izango da euskara esparru batzuetan lehen hizkuntza izatea. “Euskaraz eta kito”-ko euskal gizarterik ez dut irudikatzen, ez dut uste ona litzatekeenik, eta, beraz, ezta ere “castellano y punto”-ko gizarterik.

Zenbait diskurtsotan araua eta borondatea kontrajarri egiten dira, batzuek aruari indarra ematen diotelako eta besteek borondateari. Biak dira garrantzitsuak. Zenbait esparrutan arautu daiteke eta hala egin dago gainera. Baina erregulazioak eta arauak ez badatoz bat herritarren borondatearekin, porrota segurtatua dute. Legea eta arauak behar dira, baina hauek benetan ahalbidetzen dituen herritarren atxikimendua eta borondatea da, etengabe elikatu behar dena, euskara bera erakargarri eta baliagarri eginez.

X.M. Borondatearen izenean bakarrik arituz gero eta eskakizunik jartzen ez badira... kontuz! Bakoitzak nahi duena egin dezakeela pentsatzen badu, horrek prestigioaren galera dakarkio hizkuntzari...

P. B. Baina ez da gure gizarteko kasua...

X. M. Hor daude UEMAko ordenantzei jarritako helegiteak.

“Unibertsitatean gertatzen denaz ere baditut kezka, Nafarroako Unibertsitate Publikoan %38 euskaldunak dira, baina denak ez doaz dauden euskal lerroetara. Zergatik? Euskaldun inposatuen kontzeptua sortu da hor, guraso batzuek inposatu diete seme-alabei euskarazko hezkuntza, eta ez dakigu horrek zer eragin izango duen hauek euskaldun aktibo izaterakoan”

CARLOS VILCHES

P.B. Udal askotan onartuak dituzte ordenantzak azken 25 urteetan, baina ez dira neurri handi batean betetzen, hori ere bada arazoa, oso adierazgarria eta kezka garria.

X.M. Baina salatu ere egin daiteke hori...

P.B. Ez nago salaketaren dinamika horretan... Bide horretatik ez goaz inora. Sarri galdetzen digute, “aizu, zer egin behar duzue dagokien hizkuntza eskakizuna eskuratu ez duten funtzionario horiekin”. Nire erantzuna izaten da: “Egin beharra izanda ezer egin ez dutenak %5 besterik ez dira. Enpresa askok nahiko lukete beren kudeaketa planetan %5eko porrotarekin ibiltzea. Nire kezka da ea zer egin behar dugun euskaldundu diren eta lana neurri handi batean euskaraz egiteko gai diren milaka euskaldun horiek euskaraz lan egin dezaten. Dekretuak eta legeak beharrezkoak badira ere, ez dira behar besteko, herritarren hizkuntza ohiturak ez dituztelako eurek aldatzen. Legeriaren makulua behar da, baina horiei bidea ematen diena borondatea da, eta hau elikatu egin behar da. Hori gabe jai.

X.M. Diskurtso hori da etengabe entzun duguna. Bai, konforme nago, leku batzuetan estatuaren babesa

“Edozein hizkuntza politikatan etxe inguruko giroetan eragitea gomendatzen da, bereziki garrantzitsua da eremu hori. Eta datua (Eustat) honakoa da, 1991tik 2006ra etxeko erabilera ez da aldatu: 1991n euskaraz hitz egiten zuen %13k, eta euskaraz eta erdaraz %8k; 2006an euskaraz %12k egiten du eta bi hizkuntzetan %8,5ek”

PABLO SUBERBIOLA

izanda ere porrot egin da eta beste batzuetan arrakasta lortu da. Ados, oreka bat lortu behar da, baina sistematikoki esatea araua ez dela inportantea...

P.B. Nik ez dut horrelakorik esan...

X.M. Bada, nik ez dut oreka hori ikusi eta gainera gehiago ikusi dut arazo horri aurpegia eman nahi ez izatea. Begira gidatze alorrean, puntukako sistema jarri denetik istripuak jaitsi egin dira...

P.B. Baina jendeak hori onartu egiten du, istripuen izateko arrazoi nagusiekiko kontzientzia maila bat baduelako. Erretzearekin berdin gertatzen da. Funtsen arazoia ematen ari zara eta lege horiek orain duela 20 urte jarri ez baziren, herritarren kontzientzia horretarako prestatua ez zegoelako da. Horregatik da “araua eta borondatea” eta ez “araua edo borondatea”. Araua eta borondatea biak elkarrekin.

Biok ikusten duzue oreka behar dela, baina egindakoari buruz ikuspegi desberdinak dituzue. Ez dut uste eztabaia horretan gehiago luzatzea merezi duenik. Pablo eta Carlos, zerbait gehitu nahi al duzue gai honi buruz?

P.S. Euskal Herrian hizkuntzen arteko dinamika botere kontua ere bada. Edozein eratan, dekretua jar-tzen bada baina sozialki ez badago arau hori indartu-ko den sentsaziorik, horrek bide motza izango du. Bere garaian hezkuntza mundura euskalduntze pla-nak-eta iritsi zirenean, irakasle batzuk poztu egingo ziren eta beste batzuk ez, baina lehenago edo geroa-go egin beharrekoen artean kokatuko zituzten. Hori bai, batzuek pentsatuko zuten inposaketa bat zela.

P. B. Oso adibide ona da. Gurasoak euskalduntze prozesu horrekin ados egon ez balira, askoz zailagoa litzateke irakasleria euskalduntzeko eman diren pau-soak ematea.

Borondateaz ari garela, azken 20 urteetan herritarrengan izan al da hizkuntza politikaren aurkako boronda-terik? Euskararen Aholku Batzordeak eztabaidarako landu duen txostenean esaten da ezin dela aurreratu gizar-teak mugak jartzen dituelako.

P.B. EAEn hizkuntza araudia eta bere garapen zabal guztia herritarren eskakizunaren aurretik dago. Galtza bete lan daukagu zenbait esparrutan araututakoa bete-tzeko. EAEn, hizkuntza kontuan, daukagun legediak ez du oztopatzen gauden tokitik aurrerago joaterik.

X. M. Eta hizkuntza eskubideak? Leku askotan hiz-kuntza eskubide mordo bat urratzen da egunero, salatzen dira eta erantzuna da ezin dela ezer egin.

P.B. Hizkuntza eskubideak aitortuta daude. Asko errespetatu egiten dira, eta beste batzuk ez, zailtasu-nak daude leku eta une guztietan zenbait eskubide baliatzeko.

C.V. Egindako azterketei begiratu gero, herritarrek ez dute arazorik euskararen presentzia handitzeko eta honi lege babesa emateko. Jakina, Nafarroan legeak ez du laguntzen, eta Nafarroako Gobernuak gainera dagoen legedi laburra ere ez du betetzen. Legediaren ikuspegitik, gizarte mugimendutik helegiteak-eta egin direnean gehienetan irabazi da. Europatik ere Gober-nuari zenbait aldiz esan zaio euskaldunen eskubi-deak ez direla betetzen. Nafarroan beharrezkoa da

dugun lege markoa gainditzea. Eredu pribatuan eta pertsonalean aukera asko daude euskaraz bizitzeko: komunikabideak, telebistak, liburuak... Eredu publi-koan, aldiz, lan handia dago, euskararen presentzia urria da eta biziko dugun hizkuntza aniztasun horre-tan euskarak espazioak irabazi behar ditu.

X. M. Iparraldean gertatzen dena ere harrigarria da, kutzazain automatiko askotan bospasei hizkuntza ager-tzen dira eta euskararik ez. Zer egin dezakezu hor? Konstituzioarentzat euskara ez bada existitu ere egiten... Borondatearen zain egon? Diskurtso horrekin jai dugu.

P.B. Arian-arian egin beharko da aurrera, progresiboki. Euskararen Legeak berak aitortzen ditu eskubideak, baina hauek progresiboki bermatu behar direla dio. Lehen aipatu duzun Merkataritzaren Dekretua aztert-ko dut, adibide gisa. Lehenik etorri zen Kontsumitzaile-en Legea eta hor barruan kapitulu bat euskararen presentzia garatzeko landu zen, merkataritzaren zati bati eragiten diona. Nire etxe ondoko okindegia, jaki-na, ez du hartzen. Baina kontuz, argi utzi nahi dut ez dagoela zonifikaziorik, Kontseilutik zabaldu izan duzuen bezala, Nafarroako zonifikazioarekin pareka-tuz. Ez dakit ez diren gauzak esanda zer lortu nahi den.

Dekretuan honakoak sartzen dira: 250 langile baino gehiago edukita, urtean 50 milioi euro edo gehiagoko negozio bolumena duten enpresak, publikoarekiko harremanetarako 15 lagun baino gehiago dituztenak baita ere, eta publikoarentzako 400 m²-ko azalera duten establezimenduak, hauek bakarrik %33tik gora-ko elebidun kopurua duten herrietan edo hiriburuetan. Jakina, azken kasuan, egoera soziolinguistikoaren ara-berako helburuak eta bideak zehazten ditugu; adminis-trazioko hizkuntz eskakizunekin ere berdin egiten da, eta hor ez zaigu zonifikazio salaketarik egiten.

X.M. Politikoki zilegi izan liteke, une batean “hemen bai-hemen ez” esateko. Baina Kontseilua ez dago ados. Uste dugu eskubideak eskubide direla mundu guztiarentzako eta gero bai, gero sar gaitetzke epeak aztertzen, prozesu bat osatzen... Baina alde aurretik jende bat kolokan uzten hasten bagara, abiapuntu eskasa jarriko da.

P.B. Eskubideak aitortu eta gero epeak jarri, diozu. Horixe egiten da.



X.M. Bai, baina oso argi esanez helburuak bete egingo direla...

P.B. Iritsiko da, jakina...

C.V. Arauak ezinbestekoak dira, bestela nola defendatuko dira hizkuntza eskubideak? Hori bai, progresiboki bete behar dira, iritzi publikoa irabaziz. Tira-bira asko izan ditugu euskara medio eta zaindu behar dugu honen zabaltzea.

P.B. EAEn euskarak araua behar duela esatea Kantauri Itsasoak ura baduela esatea bezala da, arauak bai baitauezkagatu. Corpus juridiko oso zabala daukagu...

X. M. Bai, baina eskubideak urratzen direnean zera entzuten da: "Ez dago hori babesten duen araurik"...

**Bakoitzaren posizioak argi daude.
Pablo edo Carlosen txanda da.**

P.S. Eremu formalaz ari zarete, baina eremu ez formaleko datu bat azpimarratzea interesatzen zait. Euskalduntze prozesu honen hastapenean, ezagutzak erabilerara ekarriko zuela pentsatzen zen eta datu honekin hori zalantzan jartzen da. Edozein hizkuntza politikan etxe inguruko giroetan eragitea gomendatzen da, bereziki garrantzitsua da eremu hori. Eta datua (Eustat)

honakoa da, EAEn 1991tik 2006ra etxeko erabilera ez da aldatu: 1991n euskaraz hitz egiten zuen %13k, eta euskaraz eta erdaraz %8k; 2006an euskaraz %13k egiten du eta bi hizkuntzetan %8,5ek.

P. B. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, 1991tik 2006ra euskararen erabilerak gora egin du esparru guztietan, baina etxean gutxien. Gora egin da elebidunen kopurua asko hazi delako: nola 137.000 elebidun gehiago dauden eta mutuak ez diren, erabilerak gora egin du. Eta gora egin du nagusiki gazteen eremuan, euskaldundu diren gehienak gazteak dira eta. Baina gizarte osoa hartu ordez, elebidunen esparrua hartuz gero, elebidunek ez dute euskara duela 15 urte baino gehiago erabiltzen, eta zenbait esparrutan gutxiago.

Faktore demolinguintikoe eragina dute horretan, gutxieneko hizkuntza gaitasun maila bat behar delako eta erabilera esparruak ere bai. Gaurko elebidun gazte gehienek gaztelania dute lehen hizkuntza, eta gune erdaldunetan bizi dira. Erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz euskaraz baino. Lehen guttiz alderantziz zen hori. Baina horrez gain, atxikimendua dago, eta horren arabera norberaren esparru pribatuan gehiago edo gutxiago erabiliko da. Etxean, adibidez, elebidunen arteko harremanetan erabilerak behera egin du, baina seme-alabekiko harremanetan gora. Horrek esan nahi du bikoiteak erdaraz hitz egiten duela eta seme-alabekin

“2⁵ urte hauetan eskolatik zetozen gazteengan utzi da euskalduntzearen zama eta hor huts egin da. Irakaskuntzaren parez pare beste espazio batzuk ere euskaldundu behar ziren eta hor atzera gabilta eta indar gutxirekin”

XABIER MENDIGUREN

euskaraz. Beraz, hor badira arauekin zerikusirik ez duten faktoreak eta arreta handia eskatzen dutenak. Euskararen erabilera esparru formaletan gehitu da gehien, askoz gutxiago esparru pertsonal eta ez formaletan. Arauekin zerikusia duten esparruetan areagotu da gehien erabilera, eta norberaren erabakiarekin zerikusia duten esparruetan gutxien. Arauak eta politika baino zer edo zer gehiago beharko da, beraz, erabilera gehitzeko.

C.V. Euskararen etorkizuna azken urteotan gehiegi utzi da eskola eta administrazioaren eskuetan, eta gizarteak eta pertsonak protagonismo handiagoa hartu behar dute euskararen garapenean. Lehengo euskaldunek, oro har, beste koherentzia maila bat zuten euskararekin, gaur egungo gazteak pragmatikoagoak dira. Unibertsitatean adibidez, euskaraz ari gara klasean, bukatzen da hau eta kanpoan gehienek egiten dute erdaraz.

P.B. Hori ikasle, irakasle eta beste askoren artean ere gertatzen da. Beste fenomeno bat da euskaraz ari zanean hitzekin, esamoldeekin, esaldiekin... gaztelaniri ematen zaion tarte handia.

X.M. Atzoko Jardunaldietan [Hizkuntza Gutxituen Erronkak Globalizazioaren Aroan, Bilbon urriaren 9an eta 10ean egindakoa] Saint-Etienneko unibertsitateko (Frantzia) Marielle Rispail-ek hibridazio eta mestizaia fenomenoak ohikoak direla zioen, etorkizunean areagotu egingo zirela eta horietara ohitu behar dugula.



P.B. Gaitasunarena oso eremu irristakorra da. Guk ezin dugu egin, hezkuntza munduan esaterako, edo B2a maila dago edo ez dago euskalduntasunik. Kontuz! Okerra da ikusmolde hori. Norbait euskararen hizkuntza komunitateko kide sentitzeke ezin gara halako hizkuntza gaitasun maila exigitzen hasi. Gaur elebidunen erdia eremu erdaldunetan bizi da, eta horietako familia erdaldunetako seme-alabak, D ereduan aritu arren, oro har, ez dira iritsiko Azpeitian B ereduan dabilenaren euskara mailara. Horregatik, ordea, ezin dugu pentsatu euskal hiztunen komunitatekoak ez direnik, bestela euskaratik uxatzen ari gara. Horrez gain, elebidun hartzaileak [euskaraz egin ez baina ulertzen dutenak], orain arte baino askoz gehiago baloratu behar ditugu aurrerantzean, horiek gureganatzen ditugun neurrian euskaraz bizitzeko aukerak handituko ditugulako.

X.M. Bai, ados nago horrekin. Baina euskaldunok, horrekin batera, gune indartsu bat osatu behar dugu, halakorik ez badago datozkigunak ezingo ditugulako blaitu. Horretarako adostasuna eta kontsentsua landu behar ditugu, politikari, agintari eta gizartean gabiltzan artean. Indarrak bildu egin behar ditugu eta ez sakabanatu, bestela, azukre koxkorra uretan bezala, disolbatu egingo gara.

P.B. Erronka gisa, hizkuntza komunitatea haztea bezain garrantzitsua edo garrantzitsuagoa da euskal hiztunek euskara bere hizkuntza bihurtzea hainbat



erabilera esparrutan, eta batez ere esparru ez formaletan. Alde horretatik, euskaraz erdaraz baino pattalago ari diren bikote euskaldun horien erantzukizuna oso handia da datozen hamarkadei begira; horiek gai baldin badira euskara etxeko hizkuntza bihurtzeko, aurrera pauso handia emango dugu, horrela euren seme-alaben lehen hizkuntza euskara izatea lortuko luketelako, gaurko gazte elebidun gehienek kasuan ez bezala, gaur lehen hizkuntza gaztelania baitute. Hori guraso horien esku dago, ez arau edo legeen esku, eta erabakigarria izango litza-teke euskararen etorkizunerako.

Xabierrek kontsentsuari egin dio erreferentzia. Gaur egun 1982ko kontsentsua kolokan dagoela aipatu izan da.

X.M. Kontsentsua zabaltzeko ahalegina egin behar da, baina batzuekin zaila da. Kontsentsu abstraktuak baino, edukiak izango dituzten kontsentsuak lortzera jo behar dugu. Ezin da kontsentsu maila apal bat lortu gero ezertarako balioko ez duena. Eta kontsentsu hori batez ere euskararen inguruan lanean gabiltzanon artean lortu behar dugu.

P.B. Gai korapilatsua da. Euskarak aurrera egingo badu, gaur duguna baino kontsentsu handiagoa behar dugu, bai kuantitatiboki bai kualitatiboki. Alor honetan zenbait gauzetan atzera egin da, baina ez da kontsentsua apurtu. Guk horregatik bultzatu dugu

“Konfrontazio eta **K**enfrentamendu giro batean ezin da aurrera egin. Hizkuntza politikan aurrera egiteko, ezin gara oinarritu bakarrik hizkuntza eskubideetan; gizartean eskubide asko daude, absolutuak oso gutxi, eta guztien uztardura bilatu behar da”

PATXI BAZTARRIKA

Jaurilaritaztik Euskara 21 izeneko eztabaida prozesu zabal hori, orain artean bikaina izaten ari dena. Konfrontazio eta enfrentamendu giro batean ezin da aurrera egin. Hizkuntza politikan aurrera egiteko, ezin gara oinarritu bakarrik hizkuntza eskubideetan; gizartean eskubide asko daude, absolutuak oso gutxi, eta guztien uztardura bilatu behar da. Hizkuntza eskubideak izatea funtsezkoa da edozein gizarte demokratikotan, baina horien ondoan beharrezkoa dugu asmatzea euskararentzat zer den komenigarria, eta hor topatu behar dira adostasunak. Erdal elebarkartasuna defendatzen dutenak bakarrik dira euskararen etsaiak.

C.V. Nafarroan bada sozialki akordio maila bat aurrera egiteko, baina marko legala eta zenbait alderdien jarrera oztopoa da. Arlo formalean nahiko gaizki ibiliko gara Legebiltzarrean eta indar politikoetan aldaketarik ematen ez den bitartean. Ikusi besterik ez dago, lau herri txiki zonalde mistoan sartzeko Legebiltzarrean izan diren tira-bira guztiak, eta azkenean ez da lortu. Abertzaleak gobernuan sartzen ez badira eta alor hori bultzatu, Vascuencearen Legea harri bat da euskararen garapenerako.

P.S. Kaleko pertzepzioari helduta, ez dirudi egungo kontsentsu maila 1982koa baino handiagoa denik. Ereku pribatuko esparruetan kontsentsuan aurrera egitea zailagoa da, baina hizkuntza eskubideetan aurrera egiteko esparru batzuk ezinbestekoak dira eta horietan bai behar da kontsentsu maila bat. ■



Kike
Amonarriz*

Hizkuntza politikaren oinarriak eztabaidagai

“Baina egon badaude, zabaldu den eztabaidak prozesu honi kalte besterik ez diola ekarriko uste dutenak, euskararen aurkako indar mediatiko-politikoak aukera horietaz baliatu ohi direlako, kontrako posizioen bozgorailu lana eginez eta aurkako dinamikak bultzatuz”

Hizkuntza politikaren inguruko eztabaida indartsu samar plazaratu da berriro. Euskararen Aholku Batzordearen partaide gisa “XXI mende hasierako hizkuntza politikaren Oinarriak” eztabaidan parte hartzeko egokiera izan dudanez, bertan kaleratu diren txosten eta ekarpenetako eztabaidagairik interesgarrienak nabarmendu nahi nituzke LARRUN honetan. Hausnarketarako funtsezkoak iruditzen zaizkidan galderak aipatuko ditut beraz. Eta norbaitek interesik balu nire iritzi apaletan, “Euskara 21” gunean dagoen txostenean irakur ditzake.

Lehenik eta behin aipatu behar da eztabaida plazaratzeak berak iritzi desberdinak sortu dituela. Batzuek, egokitzen jo dugu eztabaida gizarteratzea; hizkuntza normalizazio prozesuari eta hizkuntza politika osoari bultzada berria emateko, eta atxiki-mendu eta partaidetza soziala sendotzeko. Baina egon badaude, eztabaidak prozesu honi kalte besterik ez diola ekarriko uste dutenak, euskararen aurkako indar mediatiko-politikoak aukera horietaz baliatu ohi direlako, kontrako posizioen bozgorailu

lana eginez eta aurkako dinamikak bultzatuz. Egia baita gaur egungo indar koerlazioak medio, eztabaidak ondorio negatiboak ere eragin ditzakeela.

Hausnarketa sakona egin beharko genuke beraz, gure argudioen egokitasunaz eta argudio horiek gizarteratzeko ditugun ahalmenen inguruan.

Oinarritzko kontzeptu soziolinguistikoen inguruan dugun “nahastea” eta argitasun falta ere agerian geratu dira eztabaidan. Globalizazioaren eta teknologia berrien hedaduraren eraginez, munduko eta Euskal Herriko egoera soziolinguistikoak aldatu egin dira, “elebakartasuna” eta “elebitasuna” bezalako kontzeptuak motz geratu zaizkigularik errealitatearen edo mende amaierara begirako helburuak deskribatzeko: eleaniztasuna, herritarren hizkuntza eskubideak, hizkuntza normalizazioa, elebitasun asimetricoa edo diglosia kontzeptuak maiz azaldu dira eztabaidan osagarriak balira bezala. Baina hala al dira benetan? “Elebitasun orekatua” sozialki bidera ezina dela ia aho batez onarturik, zeintzuk dira horren konplexuak diren gure errealitatea eta normalizazio-prozesua deskribatzeko erabilgarriak

“Mikel Zalbidek diglosiaz zabaldu duen debateak eragin sakonak eduki beharko lituzke soziolinguistikaren eremuan mugitzen eta hausnartzen ari garenon artean. Iruditzen zait artikulu hori irakurri eta gero, ezin izango dugula diglosiari buruz orain arte bezala hitz egin”



zaizkigun kontzeptuak? Zeintzuk dira, errealtate konplexu eta aldakor honetan, belaunaldi baten hodeiertzean marka ditzakegun helburuak, ameskerietatik eta utzikerietatik kanpo?

Mikel Zalbidek diglosiaren inguruan zabaldu duen debateak eragin sakonak eduki beharko lituzke soziolinguistikaren eremuan mugitzen eta hausnartzen ari garenon artean. Iruditzen zait artikulu hori irakurri eta gero, ezin izango dugula diglosiari buruz orain arte bezala hitz egin. Eta zeintzuk dira eta nola berreskura ditzake euskarak ekarpen horretan ezinbestekotzat jotzen diren erabilera eremu propioak?

Hizkuntza politika hizkuntza eskubideen inguruan ardaztu behar den ala ez, ur sakonetako eztabaida da. Lortu al liteke Euskal Herria eleanitza baina sozialki ahalik eta euskaldunena izatea, politika hori hizkuntza eskubideen inguruan ardaztuz? Eskubideak bermatzera bideratutako politikak ala erabilera praktikoak bultzatzera bideratutakoak lehenetsi behar dira? –muturrak bakarrik aipatzearen–.

Kontsentsua eta adostasuna zabaldu edo indartu nahi dira. “Euskara denona” da diogu denok, baina posible al da hizkuntza politikaren inguruko adostasunik, adostasun politiko zabalagorik gabe? Helburu eta bitartekoen inguruko adostasunik gabe?

Noren eta zeintzuen artean egituratu behar da adostasun hori? 1982an Euskararen Legeak izan zuen adostasun maila norantz zabaldu behar da? Ikuspegi oso desberdinak azaldu dira honen inguruan. Eta eztabaidaren erdian administrazioaren eta euskalgintza antolatuaren arteko harremanak. Batzuketan behin baino gehiagotan aldarrikatu izan dugu ezinbestekotzat elkarlan hori normalizazio-prozesua bizkortzeko. Nola uzartu ordea, administrazioaren gidaritza eta euskalgintzaren autonomia?

Erabilitako erritmoen eta markatutako (edo markatu gabeko) epeen inguruko eztabaida ere mamitsua da. Txostena orain arte egin denarekiko kritikoegi dela uste dutenen aldean, neronek kritikoagoa izan zedin ere eskatuko nuen: “Asko egin da. Gehiago egin zitekeen”. Eta honekin lotuta, egoeraren diagnostikoaren inguruan dauden irakurketa desberdinak edo kontrajarriak aipatu beharko genituzke.

Aspektu hauek guztiak eta beste batzuk zintzotasunez eta sakontasunez hausnartzeko, eztabaidatzeko eta ahal den kasuetan adosteko gai izango bagina, beste oilar batek egingo liguke kukurruku, euskalgintzaren oilotegian.

** Soziolinguista eta umoregilea*



Xabier Azanza*

Euskararen ezagutza bikoiztu da Nafarroan, euskarari buruzko legea onetsi zenetik

“Ezinbestekoa da hizkuntza monopolizatzeko saio oro desagertzea, bai eta inolako nazionalismorekin lotzeko saioa ere, bereziki nazionalismo erradikalarekin lotzekoa, horrek izugarrizko kaltea eragin baitio eta gizartearengan euskararekiko arbuio itzela sortu baitu”

Euskaltzaindiak egin berria du Iruñean “Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina” izeneko Biltzarra. Euskarabideko zuzendari kudeatzaile modura txosten bat aurkeztu nuen, Nafarroako Parlamentuak Euskarari buruzko Foru Legea 1986an onetsi zuenez geroztik euskarak Nafarroan izan duen bilakaerari buruzkoa. Aurkezturiko datuetako batek ondorioztatzen zuen “euskara ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten zuten” bi urteko eta bi urtetik goitiko nafarrak %5 zirela 1986an eta hamabost urte geroago, %10,5. Orobat, hizkuntza gaitasun horiek “zailtasunez” dituztenak 1986an %4,6 ziren eta 2003an, aldiz, %9,7. Horren ondorioz, “euskara ez dakitenak” %90,4 izatetik %78 izatera iragan dira. Datuak argiak dira: Euskarari buruzko Foru Legea onetsi zenetik euskararen ezagutza bikoiztu egin da Nafarroan.

Komeni da azpimarratzea Nafarroako eremu euskaldunean euskararen irakaskuntza derrigorrezkoa dela, ikasleek, oinarrizko eskolatzeko aldia bukatutakoan, euskarazko gaitasun maila nahikoa egiaztatu dezaten. Eremu mistoan eta eremu ez-euskaldunean euskararen edo euskarazko irakaskuntza borondatez-

koa da. Euskara hartzen duten hizkuntza ereduak matrikulazioaren bilakaera positiboa da eta 1986. urteaz geroztik D ereduaren ikasten dutenen kopurua bikoiztu da (%13tik %26ra) eta A ereduaren hasieran %5,5 ziren eta gaur egun, aldiz, %25 dira. Datu horiek bilakaera positiboa erakusten duten arren, errealitatea da nafar ikasleentako ia %50ek oraindik ez dutela inolako harremanik euskararekin eta bakarrik %25 matrikulaturik dagoela D ereduaren, egun Nafarroako berezko bi hizkuntzatan ikasle elebidun edo eleaniztunak bermatzen dituen eredu bakarrean.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak badu hizkuntzak ezagutzearen arloan erronka bat: hizkuntzak (Nafarroan ditugun berezko bi hizkuntzak zein ingelesa) integratuko dituen hizkuntza eredu bat gizarteari eskaintzeko gai izatea. Lortzen badugu eredu berriak bi hizkuntza horietan gaitasuna bermatzea halako moldez non denek, bai euskaraz, bai ingelesez, gutxieneko B1 maila eskuratuko duten eta non, eremuen eta aukeratutako hautuen arabera, B2 edo C1 maila eskuratzea ahalbidetuko den, lortuko dugu euskararen ezagutzaren ehunekoak nafar gizartearen areagotzen jarraitzea.

"IV. Inkesta Soziolinguistikoaren azken atalean, Nafarroari dagokionean, ondorioen barnean aipatzen du euskara sustatzearen alde daudenak (%37,7) eta horren aurka daudenak (%34,2) nahiko bertsuak direla. Duela hamabost urte, aurkako jarrera zutenak (%51,8) askoz gehiago ziren aldeko jarrera zutenak baino (%21,6). Alabaina, oraindik ere nafar gizartearen heren bat euskararen aurka dago"

"1986. urteaz geroztik D ereduan ikasten dutenen kopurua bikoiztu da (%13tik %26ra) eta A ereduan hasieran %5,5 ziren eta gaur egun, aldiz, %25 dira. Datu horiek bilakaera positiboa erakusten duten arren, errealitatea da nafar ikasleeta ia %50ek oraindik ez dutela inolako harremanik euskararekin eta bakarrik %25 matrikulaturik dagoela D ereduan"

Biltzarrean bertan, Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak IV. Inkesta Soziolinguistikoa (2006) argitalpenaren emaitzak aurkeztu zituen. Azken atalean, Nafarroari dagokionean, ondorioen barnean aipatzen du euskara sustatzearen alde daudenak (%37,7) eta horren aurka daudenak (%34,2) nahiko bertsuak direla. Duela hamabost urte, aurkako jarrera zutenak (%51,8) askoz gehiago ziren aldeko jarrera zutenak baino (%21,6). Alabaina, oraindik ere nafar gizartearen heren bat euskararen aurka dago.

Datu hauen ildoari jarraikiz, uste dut duela bostehun urte baino gehiago Bernard Etxeparek kantuarren bitartez erakusten zuen izpiritua berreskuratu behar dugula: "Lengoajetan ohi inzan/estimatze gutitan;/ orai aldiz hik behar duk/ohoria orotan". Beharrezkoa dugu euskarak Nafarroan bere ospe eta ohorea berreskuratzea eta horretarako ezinbestekoa dugu denok batera ahalegintzea. Nafarroako Gobernuak, besteak beste, nafar guztien kultura ondare den alde-tik, errespetu eta babes berezia behar dituen euskara sustatuz eta urratsak emanez, hizkuntza horrek presentzia handiagoa izan dezan, errotulazioan, adibidez. Gizarteak, hizkuntza ezagutu ala ez, euskara

berezko bi hizkuntzatakako bat dela harro bere gain hartuz. Eta horretarako ezinbestekoa da hizkuntza monopolizatzeko saio oro desagertzea, bai eta inolako nazionalismorekin lotzeko saioa ere, bereziki nazionalismo erradikalarekin lotzekoa, horrek izugarritzko kaltea eragin baitio eta gizartearengan euskararekiko arbuio itzela sortu baitu.


Nafarroak bi lorpen erdietsi nahi du:

1.- Hizkuntza eredu eleaniztun bat, oro har hiru hizkuntzen (gaztelaniaren, euskararen eta ingelesaren) ezagutza bermatuko duena eta haiek jakitea ahalbidetuko duena.

2.- Euskara ezein hautu politikorekin ez lotzea eta nafar guztien kultura ondareztat hartzea.

Erdiosten ditugunean, euskara goraka egiten ari den joeran aurrera egitea lortu dugu. Denon lana da eta denon artean lortu behar dugu euskarak Etxeparek nahi zuen maila eskuratu nahi badugu: "orai aldiz hik behar duk ohoria orotan".

** Nafarroako Euskararen Institutuko zuzendaria*



Emilio Lopez Adan*

Euskaldunen mugak Ipar Euskal Herrian

"Zer egin behar? Hiru puntu, hiru erantzun: Botere publikoei buruzko politika ofentsiboa, irakaskuntzan, bizi sozialean eta administrazioan euskaldunen eskubideak segurtatu arte. Euskaldunen alorrak azkartu, hedatu eta biderkatu, kudeatzaile estatalen eskuetan utzi gabe. Eta euskalduntasun modernoan hemengo bertako euskalkiak eta kultura biziarazteko sormena izan"

(Obarra: "euskaldunak" terminoa bere esanabi linguistiko mugatuan erabiliko dut: euskaraz dakitenak)

Berrikitan argitaratu da azken inkesta sozio-linguistikoa, eta etengabeko gainbehera erakusten duela ondorioztatu dute gehienek. Bada puntu baikor bat: gaztetxoaren artean, euskaraz zerbait dakitenen kopurua emeki emendatu dela. Datu horren gainean baten batzuek finkatu dute ikuspegi optimista bat, minoritarioa, erraiteko euskararen irakaskuntzaren fruituak ugarituko direla eta, agian, 2050. urterako Ipar Euskal Herriko gazteen %55 euskalduna izanen dela. Botere publikoen politika linguistikoak lehenetasun osoa eman dio haur eta gazteen euskarazko irakaskuntzari, eta ikuspegi horrek justifikazio aire bat ekartzen dio.

Inkestaren emaitzak eta haien interpretazioak kontutan harturik, hiru ohar egin nahi nituzke.

1./ Interpretazio baikorra desegokia da.

Euskaraz dakiten gazteen artean, ezagutza mailak oso ezberdinak dira. Familia euskaldun batean sortu, etxean ikasi eta, gainera, eskolan ere irakaskuntza elebidun orekatua izan dutenak ezin konpara daitezke familia erdaldunetan hazi eta irakaskuntza desorekatua izan dutenekin. Ez dute gaitasun bera, inondik ere.

Berriz, hiltzen ari diren euskaldunen kompetentzia linguistikoa oso handia zen. Haien utzi zuloa ez dute emari eskaseko gazteek beteko. Erabilpenaren emaitzak hor dira, eta norberaren esperientzia ere bai: eskolan zerbait ikasi duten gazteen artean, euskaraz bizitzeko gaitasun eta grina atxiki dutenak gutti dira.

Positiboa bada euskararen irakaskuntza zabaltea, edozeinek daki politika linguistiko eraginkor

batek beste adar asko behar dituela: ez dira, eta haien sortzeko borondaterik ere ez.

2./ Euskaldun motibatuen lorpenak gelditzen ari dira.

Azken hogeita hamar urteotan, belaunaldi oso militante batek bazterrak mugitu ditu eta aitzinamenduak ekarri: irakaskuntzan, euskararen presentzia publikoan eta euskararen balorazio sozialean, emaitza baikorrak izan ditu. Alta, botere publikoek erabaki dute elkarte eta militanteen emaitzen gainean jarri eta haien kudeatzea (horiek baitira Euskararen Erakunde Publikoaren helburuak): geroztik, badirudi herri mugimendua geldi dela, orain arte lortu mugak gainditzeko ezintasunean. Elkarte bakoitzaren beharrak EEPekin negoziatzen dira, eskasak dira iniziatiba berriak eta oldarterik ez da. Aitzindariak lortu zutena kudeatzen da administrazioaren begi (eta diru) pean.

Inmobilismo horren baitan ez da soilik botere publikoaren eragina ikusi behar. Finean, euskaldunen mugiarazteko ezintasuna dugu huts nagusia. Transmisioaren gainbeherak argi erakusten du euskaldun gehienek utzikeria: beharbada, aitzindarien oldartzea hasi zenean jadanik sobera sakonak ziren politika glotozidaren ondorioak, eta euskararen aldeko militantzia ez da aski erakargarria izan frantseseko tendentzia nagusia uzkaitezko. Hots, urrunegi ginen, erdiesten ahal zena erdietsi dugu, eta hemendik aurrera miseria kudeatzeko gaitasuna besterik ez dugu ukanen.

3./ Esperantzak mugaz gaineko modernitatearekin lotuak.

Gauza nabaria da (eta aitzinetik errana) euskarak Lapurdi-kostan eta Lapurdi-barnealdean eusten duela, eta beheiti ari dela Baxe Nafarroan eta Xiberoan. Bizimodu eta balore tradizionalak atxikiak ziren euskaldunak ez dira gauza izan frantsesastunari aurre egiteko; berriz, modernitateari eta Hego Euskal Herriko eragin hurbilari lotu direnak, bai.

Ikuspegi honek arazoak eta esperantzak sortzen ditu. Mugaz gaineko euskalduntasun modernoari atxikia den belaunaldi berria euskararen alorrean biziko da, nahiz eta Ipar Euskal Herriko jendartea sakonki erdaldundu: horra esperantza. Gero, bertako euskalkiekin eta kultura tradi-



zionalarekin harremanak nola moldatuko diren, hori bai dela arazoa.

Egoera larria da, euskaldunen eskubideak egoki kudeatzeko politika linguistikorik ez delako, eta ez dirudi laster izanen denik. Egoera larria ere, euskaldun motibatuek zuten oldarra bere mugetaraino heldu delako, eta guttiengoaren lorpenak kudeaketan gelditua da. Egoera itxaropentsua, guttiengo horrek bereganatu baititu mugaz gaineko euskalduntasun orokor baten gaitasunak, eta horrek etorkizuna segurtatuko dio.

Zer egin behar? Hiru puntu, hiru erantzun: Botere publikoei buruzko politika ofentsiboa, irakaskuntzan, bizi sozialean eta administrazioan euskaldunen eskubideak segurtatu arte. Euskaldunen alorrek azkartu, hedatu eta biderkatu, kudeatzaile estatalen eskuetan utzi gabe. Eta euskalduntasun modernoan hemengo bertako euskalkiak eta kultura biziarazteko sormena izan.

** Medikua eta idazlea*



Alberto Lopez*

Nahiak, premiak eta ahalbideak

"Hiztunen kopurua gehitzea erkidegoa sendotzearen ondorio izan behar zuen, ez, alderantziz, hura honen oinarri. Galduta gaude uste badugu euskararen etorkizunak ezinbestez eskatzen duela euskara gure gizarteko gehienen hizkuntza bihurtzea"

Euskara bizirik dago XXI. mendearen hastapenetan. Hizkuntza bizia da euskaldunek hala nahi izan dutelako. Baina ez nahi hutsalarekin. Euskaldunek lortu dute euskara izan dadin, oraindik ere, haien arteko harremanak bideratzeko egiazki darabilten mintzabide egokia.

Izan ere, gurari hutsak ez du izaten ondoriorik, askok, gure artean, sarri, kontrakoa uste badu ere. Euskaldunek, belaunaldietan zehar, asmatu dute, hiztun erkidego gisa, historiak ezarritako ataketa-tik egoki ateratzen. Eta ez dirudi egokitutako irtenbideak guztiz makurrak izan direnik.

Galerak eta aldaketa sakonak izan omen ditugu ibilbide historikoan. Ez dakit galerak ezinbesteko zirenik; ez dakit jasandako aldaketak galgarri edo onuragarri izan ditugunik ere. Nolanahi ere, egungo errealitatea da kontuan hartu behar duguna, hau baita, gogoko izan edo ez, aurrerako ibilbidearen abiapuntu; nahitaez.

Joseph Roth, sortaldeko idazle judu zorigaizto-koak, *Judu herratuak* saiakeran haren herriaren norabideaz hausnarketa egiten duenean, bidaria

hartzen du adibide. Bidariari, esaten du, ez diote galdetzen nora doan, nondik datorren baizik; alabaina, ohartarazten digu idazle austriarrak, bidariari helburua da ardura diona, ez abiaburua. Gu ere helburuak arduratu behar gaitu.

Helburua gogoan duenak bide egokia aurkitu behar du harantz bideratzeko. Bide okerra saihetsi behar du; askotan, gogokoen duen bideari uko eginez, zuzenen irizten dion bidea gaitzetsiz. Ausardia baino gehiago, zorrotasuna eskatzen dio horrek bidariari. Ondo ezagutu behar ditu, zuzen aztertuta, egoeraren ezaugarriak: bidaiarako eskura dituen baliabideak, bere indarrak, nolako bidaideak dituen –eta nahi dituen– aldean, bidearen zertzeladak, nondik-norakoak...

Aurrekoek asmatu dute, nola edo hala, honainoko bidean; asmatuko dugu guk hemendik aurrera egin beharrekoan?

Euskara loratua da, hizkuntza gisa, aspaldi ez bezala. Euskal hiztunen erkidegoak eskura ditu inoiz izan ez dituen adinako baliabideak. Baina, ez dut uste gauzak ondo egiten ari garenik. Ibilbi-

dea arriskutsu bihur dezakegu, gauzak egoki neurtzen ez baditugu.

Euskal hiztunen erkidegoa txikia da, baita gure gizartean, euskal gizartean, ere. Eta ez dut uste kontuan hartu dugunik, egoki, horrek ekartzen dituen ondorioak, horrek ezartzen dituen mugak eta baldintzak. Egonezina sortzen du euskaldun –eta, bereziki, abertzale– askorengan halako errealitatea mahai gainean ipintzeak. Eta ipintzen denean, askotan, helburu bakarrarekin egiten da: halako egoera aldatzeko helburuarekin. Euskaldun gutxi bagara ipin ditzagun ume gehienak euskaraz ikasten eta asko izango gara etorkizunean, pentsatu izan dute askok. Baina halako pentsamendua amets hutsa bihurtu da, neurri handi batean. Zoritzarrez –edo zorionez– gizarteetan gauzak ez dira hain era errazean gertatzen; gizarteek bilakabide menderakaitzak izaten ohi dituzte, eta nahiko gaizki barneratzen dituzte saioak. Hizkuntza baten hiztunen kopurua handitzeko bilakabideak eskakizun ugari eta, askotan, ezkutatuak ditu.

Badakit euskaltzale askok ez duela batere gogoko halako gauzak entzutea, baina uste dut abertzaletasunaren nagusitasun politikoak itsutu gaituela, sinetsaraziz eskura genuela gure nahiak gauzatzea, helburuak edonolakoak izanda ere. Euskaldunen kopuruaren gehitzea onuragarri da, zalantzarik gabe. Baina, nire ustez, ez da ezinbestekoa euskal hiztunen erkidegoa osasun bidean ipintzeko; ez dut uste gure lehen helburua izan behar duenik; eta ez dut uste, lortu ezinean, galbidetik abiatuko garenik. Bide okerra hartu dugu, nire ustetan, bide horretatik hizkuntzaren baliabide preziatuenak, hiztunak, alferrik xahutu ditugulako helburu hanpatsuen bila. Hiztunen kopurua gehitzea erkidegoa sendotzearen ondorio izan behar zuen, ez, alderantziz, hura honen oinarri. Galduta gaude uste badugu euskararen etorkizunak ezinbestez eskatzen duela euskara gure gizarteko gehienek hizkuntza bihurtzea. Aldiz, helburutzat hartu beharko genuke bermatzea euskarak bizirik dirauela gutxi batzuen hizkuntza izaten jarraitzen badu ere.

Ezinbesteko dugu gure artean hain sarri nahastu diren nahiak, premiak eta ahalak egoki bereiztea, bakoitzari berea emanez. Nahiak –gehiene-

“Zilegi da bakarrik pentsamolde batekoentzat euskal ekimenak sortzea; baina ez dezatela esan halakoak euskararen izenean egiten dituztela, hizkuntzari lehentasuna ematen diotela”

tan, nahi politikoak direnak– ez ditugu nahasi behar euskal hiztunen erkidegoak dituen premiekin. Eta premiak ahalen arabera egokitu beharko ditugu aurrean dugun bidea jorratzen asmatu nahi badugu. Ahaztu gabe ahalbideak zorrotz mugatuta daudela gizarte demokratiko batean. Aukera okerrak egiten baditugu, hiritarrek ihesbideak aurkituko dituzte, ez izan dudarik.

Bestalde, euskal munduak erakargarriago izan beharko luke, zabaldu, handitu nahi badu. Euskara, askotan, 'zaticatzaile diren indarrekin' lotzen jarraitzen du euskaltzale frankok, Luis Villasantek egindako oharra erdeinatuta. Zilegi da bakarrik pentsamolde batekoentzat euskal ekimenak sortzea; baina ez dezatela esan halakoak euskararen izenean egiten dituztela, hizkuntzari lehentasuna ematen diotela. Euskara amu gisa erabil dezakete, baina gero eta urriago izango dira hala harrapatuko dituzten euskaltzaleak. Askok izango dira, aldiz, ur haietatik urrunduko direnak.

Gauzak hala izanda, Axularrengana itzuli beharko genuke, berriro ere. Eta haren hitzak hartu etorkizuneko goiburutzat: “Aitcinerat hobequi nahidut governatu”. Guztion mesederako izan dadila.

* EHUko zuzenbide konstituzionaleko katedraduna eta Eskualdeetako edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Kartako Adituen Komiteko kide espainiarra



Jose Manuel
Odriozola*

Gaixo kronikoen unitatean

"Euskararen jabekuntzan nazio-kultura euskaldunaren iraultzak semantikarena ekarri beharko luke, eta horrek ezarian-ezarian ikasleen euskal identitatea garatu eta bermatu belaunaldi berriak euskaldun ere senti daitezen. Euskaldun izatearen duintasuna bizi eta senti dezaten. Euskalduntasunarekin ere identifika daitezen. Oraingo euskalduntze-lanak ez baitu antzeko helbururik lortzen"

Euskadi deritzan lurraldean gauzatu den euskararen aldeko hizkuntza politika hobekien ezaugarritzen duen irudi-idea honako hau izan daiteke: gaixo kronikoen zoriak hartua dauka euskara eta herri euskalduna. Eri kronikoen aldeko hizkuntza politikak ez du esan nahi noski gaixorik dagoen hizkuntzaren alde ezer egin ez denik, zabarkeriaz jokatu denik, inor arduratu ez denik. Ez, ezta gutxiago ere. Hizkuntza gaixoaren aldeko gauza asko egin dira, neurri batzuk aipagarriak izan dira, aurrerapenaren zantzuak ere sentitu ditugu, hobekuntzaren sintomak hauteman ditugu. Eta, hala eta guztiz ere, egin den guztia eginda ere, ez gara gai izan herri euskalduna gaixo kronikoen unitatetik ateratzeko.

Iparraldean herri euskaldunaren egoera azken arnasetan dagoela jakinda, eta Nafarroakoari etnoziodioaren usaina dariola ikusirik, beha dezagun Euskadiko lurraldean zertan den gaixotasun kronikoak jota dagoen euskararen aldeko hizkuntza politika.

Diagnostikoaren lehenengo ezaugarria honelatsu adieraz dezakegu: gaixoa ez da hilko oraingo, beharbada ezta luzaroan ere. Luzaroko bizitza izan dezake euskarak seguruenik: hain zuzen, ez al zuen bada Ibarretxe lehendakariak esan hemendik mila urtera ere hemen euskaraz hitz egiten duen herri bat biziko zela? Bistakoa da beraz indarrean jarri duten euskararen aldeko hizkuntza politikaren emaitzak oparoak izango direla batzuen ustez. Baikortasuna darie lehendakariaren hitzei.

Lortuko ote dute ordea euskara hain luzaz biziaraztea? Agian bai, baina nolako baldintzetan? Hor dago gakoa. Zeren eta euskara gaixo dago, euskaltzaleok bat gatoz horretan, eri kronikoen unitatean baitago, nolabaiteko zaintzapean alegia, baina ez da berehala hilko, esan dugunez. Gaur egun dauden baliabide teknologikoak tarteko, bizitzaren luzapena esku-eskura daukagu. Zer egin behar dugu hori lortzeko zehazki? Zer-nolako baliabideak behar ditu euskarak azken arnasarik ez ema-

¿SER VASCO ES SUFICIENTE?

SER VASCO NO ES SUFICIENTE

izan euskaldun!

EL EUSKARA ES LA DIFERENCIA!



AEK-k 1989an egindako kanpaina bateko afixak.

teko? Azken hamarkada hauetan garatu ditugun tramankulu eta hodi-sistema batzuk konektatzea nahikoa izan liteke, nire ustez, herri euskaldunaren begiak erabat ez itzaltzeko.

Diagnostikoaren bigarren ezaugarria: tratamenduan dago azken hamarkada hauetan eta nahiko ondo erreakzionatu du eriak. Ez dirudi atzera egingo duenik. Eskolaren eta irakaskuntzaren hodi-sistemarekin konektatuta dago eta gaixoak bizitzarako zantzuak erakusten ditu: inoiz nabarmen, inoiz zalantzagarriago. Nolanahi ere, ez du biziberritze eta kemen sendorik erakusten, ez du garai bateko euskal hiztunen euskal senik erakusten ahozko bizitza soziolinguistikoan, baina, tira, idazten eta irakurtzen badaki gaixoak. Moldatuko da beraz halako edo holako hizkuntza-premia formal batzuk asetzeko, Hizkuntza Eskakizunei (HE) gain hartzeko eta.

Ondo dakigunez, espainieraz bizi da gaurko euskalduna, eskolatik datozkion sendabideak ez baitira gai eri kronikoen unitatea utzi eta euskarazko bizitza normala egiteko. Hala ere, aurreratu bezala, ez da erabat hilko: hots, elebiduna izango

da, ele batek bestea jaten eta itotzen badio ere. Oker ez bagaude, hori ez zaie gehiegi axola hizkuntza politikaren arduradunei: ele biko izanda bizitza osasuntsua izango duela esaten baitiote erriari. Hori dela sendabidea eta biziberritzea. Ez dagoela azpilanik eta herio-lanik gaurko elebitasun-ereduan.

Gorago esan dugun moduan, ez da batere merkea eri kronikoen unitatean dagoen hizkuntza gaixo bat artatzea. Diru dezente gastatu behar da horretarako ere. Nola edo hala bizirik mantentzeko, inbertsio batzuk egin behar dira, proiektu batzuk abian jarri: hala nola hezkuntza-sistema, hedabideak, administrazioa, eta abar. Eta hori guztia egiten dute, hobeto edo okerrago, gehiago edo gutxiago, Jaurlaritzaren hizkuntza-politikak eta euskalgintzak. Gainera, Mendebaldeko hizkuntza txikituen eta gutxituen artean egiten den hizkuntza politiken artean gurea omen da erreferente bat, atera kontuak. Guri begira baldin badaude, eredu bagaituzte, atera kontuak. Kritikak kritika, zerbait egingo du ongi Jaurlaritzak. Zer esanik ez euskalgintzak. Nik ez dut ukatuko hori. Baina, guztiare-

"Lortuko ote dute ordea euskara hain luzaz biziaraztea? Agian bai, baina nolako baldintzetan? Hor dago gakoa. Zeren eta euskara gaixo dago, euskaltzaleok bat gatoz horretan, eri kronikoen unitatean baitago, nolabaiteko zaintzapean alegia, baina ez da berehala hilko, esan dugunez. Gaur egun dauden baliabide teknologikoak tarteko, bizitzaren luzapena esku-eskura daukagu"

kin ere, ez dit inork ukatuko gure nazio-hizkuntza non dagoen: alegia, gaixo kronikoen unitatean bizi dela –bizi?, nolako bizi-kalitatea ote dauka herri euskaldunaren biziak hizkuntza normaldu batekin erkatuko bagenu?–.

Bizitza soziala, ekonomikoa eta kulturala taxuz eratzeko eta egiteko behar genukeen hizkuntza-egoeraz ari naiz, ezin baikara bizi hizkuntzarik gabe, bizitza bera baita hizkuntzazkoa. Hizkuntza baita bizitza. Beraz, konforme: gauza asko egin ditugu, baina gauza horiek guztiek ez dute balio izan gaixoa sendabidean jartzeko eta herri euskaldunak egin behar lukeen bizimodu normala egiteko. Gezurra badirudi ere, eta eginak ukatu gabe, tratamendua jarri aurreko egoera bertsuan gaudela ematen du: hau da, euskaldun gisa bizitzeko baldintza soziolinguistikoetatik argi-urtetara bizi gara oraindik. Eta okerrena ez da hori, okerrena beste hau baita: ez dago herri euskaldunak euskaraz bizitzeko modurik eta baldintzarik izan lezakeela iradokitzen digun oinarrizko zantzu eta joera enpiriko bakar bat ere, ez epe motzera eta ez epe luze-
ra begira jarrita. Hezkuntza-sistemari esker nola

"Okerrena beste hau da: ez dago herri euskaldunak euskaraz bizitzeko modurik eta baldintzarik izan lezakeela iradokitzen digun oinarrizko zantzu eta joera enpiriko bakar bat ere, ez epe motzera eta ez epe luze-
ra begira jarrita"

edo hala euskaldundu daitezkeen belaunaldi berrientzat, salbuespenak salbuespen, atzerriko hizkuntzaren izaerako mintzaira da euskara –alegia, ikaslearen kultura-identitatearekin zer ikusirik ez daukana–, eta halaxe izango da aurrerantzean ere gauzak errotik irauli ezean.

Nire iritzian, euskararen jabekuntzan nazio-kultura euskaldunaren iraultzak semantikarena ekarri beharko luke, eta horrek ezarian-ezarian ikasleen euskal identitatea garatu eta bermatu belaunaldi berriak euskaldun ere senti daitezen. Euskaldun izatearen duintasuna bizi eta senti dezaten. Euskalduntasunarekin ere identifika daitezen. Oraingo euskalduntze-lanak ez baitu antzeko helbururik lortzen.

** Euskara irakaslea*

LARRUN pentsamendu aldizkaria ARGIArekin batera banatzen da

Zuzendaria: Xabier Letona

Jabea: Komunikazio Biziagoa S.A.L.

Helbidea: Zirkuitu ibilbidea, 15. pabiloia 20160 Lasarte-Oria

Posta Elektronikoa:

larrun@argia.com **Telefonoa:** 943 37 15 45

Inprimategia: Antza S.A.L. **Informatika:** ASP

SCOOP.